




Fotografua fotografixauta

*Oñatin ezta iñor asko egongo,
hogei urtetik gorakorik,
Kalezaharreko Patxiren dendan
sartu-urten bat egin ez dauenik.
Honeik aspaldiko kontuak izan
arren, gaur egun be hor pasaitten
dau Patxik egunaren zati on bat;
guk geuk be hor
bertan harrapo
dogu
elkarrizketa
hau egin
ahal
izateko.*



Patxi Elorza: Santakurtz Errotako semia

- Zure lehenengo lana fotografixak etaratia izan da?

Ez, 28 urterekin Mondraguen obratan hasi nintzan lanian eta ondoren Zubillagako Forjetan be jardun neben urte batzutan.

- Nundik eta noiz sortu xatzu fotografixarako afeziñua?

Ba, afeziñua ikasle garaixan,

Frai Ixidro fotografixak rebe-laitten eta ikusitta.

- Lan boneittan basteko, nunbaitten ikasten ibilli ziñan Frai Ixidron lanak ikustiaz aparte?

Ez, ez, ez, lan honetan egin dotena neure kasa ikasittakuakin egin dot.

- Eta hola gehixago barik

basi ziñan?

Ez, ez badago gehixago be. Forjetan nebillen garaixan, almazengan lan egitten neben; etorri zan fotografo bat makiña haundi horreittako batekin eta han ibilli zan jeneruari fotografixak etara eta etara. Nik Donostian antzerako makiña bat ikusitta neukan eta esan neben neure artian: "Horrek etaraten baxok,

harek be etarako xok". Eta halaxe fan nintzan Donostiara eta erosi egin neben.


- Zenbat ordainduu zeben makiña ba? eta ze urtetan izan zan gutxi gora behera?

Bigarren eskukua zan, 100 pezeta kosta xaten eta 1949 inguruan izango zan.

- Ondoren eduki dittuzun

ARREGUI Haltzariak

Euskadi, 5 - Sta. Marina, 4 - Kale Barria, 57
Tfnoak. 78 07 13 - 78 30 83 - OÑATI



aparatuak nundik zuzenketan zittuan?

Donostiara faten nintzarian, plaian eta ikusten nittuan fotografixak etaraten. Han bateri eskabidia egin eta berak saldu nontan. Ondoren beste bat Alemaniatic be ekarri nostaian.

- Denbora bartan zenbat kobraiten zebeu fotografixa bakoitza?

Pezetia edo. Geruago durua kobraiten hasi nintzarian, jentia karu zala iritzi otzan. Eztot nik hemendik negozio haundirik egin.

- Hasieran etzebeu ba, kompetentzia haundirik edukiko? Baeguen beste inor fotografixak egitten zittuanik?

Ez, hemen ez, baina Aretxabaletatik etorten zan bat. Haretxek egitten nontan kompetentzia pittin bat.

- Zu basi zinan garaixan nun ateraten ziran fotografixak, hemen lokalian ala kalia ala...?

Nik gehixen gehixen Urbixan neska mutillairi eta. Bautizuak eta bodak be hasitta egozen, baiña Aretxabaletakuak harrapaitten nontan gehixenak. Lokalian berriz, huskerixak; lan haundirik etzan izaten. Auzotako jaittan be ibilli izan nintzan... San Juanen, Zubillagan...

- Zuk buskerixak esaten dos-tezu, baiña makiñatxo batek dakogu hemen etaratako fotografixia, jiraldia atzian dogula. Nundik zuzenketan zittuan dekorauak?

Hemen ikusten dozuen hau, Arantzazuko hau esate baterako, donostiar batek egin nontan eskuz. Arantzazura bertara be faten nintzan jentiar han fotografixak etaratera, baiña gastua gehixago izaten zan askotan irabazixa baiño, bazkarixa zala eta.

- Nola egitten zittuan fan etorrixak?

Hasieran bizikletan faten nintzan, sarrittan kotxeren bateri obatuta, agurotxuago eta neke gutxiagokin igoteko. Gero 1953an motorra erosi nebeu, "Lube" bat.

- Eta barrez gero beti euki dozu motorren bat ezta?

Bai, "Lubia" eta beste lau mobilette euki dittut eta komerixa galantak eragin dostai eurokin: bateko ohostu, besteko erre kara bota.

- Noiz arte jardun dozu foto-grafo lanetan?

Orain arte ixixa, nahiz eta

"Urtietan, egunez Zubillagako forjetan eta ilunkara eta jaiegunetan foto-grafo ibilli izan naiz"

1970ian, Benidorrera 1980xan, Fatimara 1976xan, Jerusalemara 1977xan...

- Nola dakozu horreik danok goguan?

Beti gustau izan xat neuretzat inportantiak diran gauzak apuntaittia eta hemen dakot kuaderno pillatxo bat, herriko eta etxeko gora-beheraz beteta. Esate baterako: Lehenego telebisiñua taberna baten 1960xan jarri ebein, Idabo 1962xan zabaldu zan, Iziargoikuara pistia 1967xan zabaldu zan.

- Lanari itxita egonagatik, egunero etorten zara zure lokalera. Zertan pasaitten dozu denporia?

Eztakot asperketako astirik. Egunero egitten dot kaletik buelta pare bat eta hona etorten naiz irakurtera eta mediatziñua egittera.

1976xan erretirua hartu. Poliki poliki lana gutxiketan fan xaten. Ordurako Oñatin beste batzuk be lan honetan baebitzen eta...

- Hortik zibar biyaiak be egin dittuzu ezta?

Bai, Erromara 1975ian, Compostelara 1971n, Logroñora



Patxiik betik euki izan dau gauzak gordeteko ohitturia. Hona hemen muestra bat.

"Lehenengo erosi nebeu makiñia 100 pezeta kosta xaten"

Araba Etorbidea, 4
Tfnoa. 79 01 32
ARRASATE
9,00 - 13,00
16,00 - 20,00



Olakua, 14
Tfnoa. 71 60 00
OÑATI
16,00 - 20,00

ALEMANA • FRANTSESA • INGELESA

- MAILA GUZTIAK
- HAURRAK, GAZTEAK, HELDUAK
- GOIZ ETA ARRATSALDEZ

HURBILDU ZAITEZ
GURE BULEGOETARA!